

Ponentzia hau prestatzen hasi nintzenean nire buruari egin nion galdera hezkuntzaren egitekoa zein den izan zen. Erantzuna beharrei erantzunez pertsona osoak sortzea izan zen.

Eta sexu-hezkuntzari dagokionez? Zein edo zeintzuk dira beharrak edo egitekoak? Eta erantzuna errepikatu zitzaidan: pertsona osoak sortzea. Jendarteratze prozesuan, kulturak ezartzen dizkigun sexu estereotipo eta eskema estatikoak gainditzea garapen osoa lortu ahal izateko.

Zergatik da garrantzitsua? Sexu-hezkuntzaren bidez lortu beharrekoa norbanakoa zoriontsua egingo duen sexualitatea bizitzeko era garatzea da. Eta bakoitza zoriontsua izango da bere modu konkretuaren arabera bizitzen eta disfrutatzen, ez eskeinitako ereduaren arabera. Sexualitate bakarra ez dagoelako, sexualitateak baizik, neska eta mutil beste hain zuzen ere, eta garatu behar den zerbait da hau.

Gizaki sexudun eta sexualak garelako jaiotzen garenetik eta hil arte; bizitza osoan zehar lagunduko gaituelako da beharrezkoa sexu-hezkuntza.

Sexudunak eta sexualak izateaz gain, pertsonak erotikoak gara ere, bost zentzuen bidez plazerrezko sentazio fisikoak esperimentatu ditzakegulako: kolore jakin batzuekin nabaritzen ditugun sentazio gozoak, norbait laztantzen dugunean... Bizitzan zehar eraikiz goaz gure pertsonalitate erotikoa; pertsonalitate hau aspektu ezberdinek baldintzatu dezaketelarik, kulturak neurri handi batean adibidez. Pertsona sexual bihurtzearen prozesua bizitzarekin hasi eta amaitzen bada ere, nerabezaroan ematen da prozesu honetan aldaketa kualitatiboa, sentazio hauek bere osotasunean edo espezifikoak erotikoki sexualki biziartzten dituen. Nerabeak estimulu batzuen aurrean sentazio erabat sexualak esperimentatzen ditu, honek sorpresaz hartzen ditu eta denbora behar du guzti hori harmonia osoz sortzen ari diren pertsonalitate berri horren baitan biltzeko. Atal hau lantzea beharrezkoa da emakume eta gizon izateko era osasuntsu baten, sexu rol estereotipatuak gaindituz eta emakume eta gizon bakoitza bere benetako desioekin konektatzen laguntzeko.

Beraz gorputz osoaren garrantziaz ohartzeko eta genitalak desmitifikatzeko da beharrezkoa sexu-hezkuntza; genitalen hezkuntza baino haratago joan behar duena, integrala izan behar duena hain zuzen ere. Horretarako emakume eta gizonen gorputzaren natura miatu, norberarena eta besteena maitatzeko eta plazerra lortzeko bitarteko moduan onartzeko. Gazteari bere gorputza eta gorputz irudia **ezagutzen**, **onartzen** eta **estimatzen** lagundu behar zaio; komunikabideetan eskaintzen diguten edertasun ereduarekiko zentzu kritikoa garatuz. Ildo beretik ere, kulturak sexu biologikoei ezartzen dizkien estereotipoekiko independente izanez, kulturak ezartzen dizkigun hetero-zentrismo eta falo-zentrismoa gaindituz. Honekin batera koitoaren desmitifikazioa dator, harreman sexualak askoz gehiago direlako koittoa baino, gorputz osoak parte hartzen duelako arestian aipatu bezala.

Gazteei zuzendutako sexu-hezkuntza hau ez da antisorgailuen eta sexu-bidezko gaixotasunen informaziora mugatu behar, hau da, genitalen inguruko hezkuntza gainditu behar du, aipatu bezala sexualitatea ez delako koitoan oinarritzen. Hezkuntza honek sexualitatea lantzea garrantzitsua ikusten duelako arriskuen iturriaren ikuspegitik: gaixotasunak, arriskuak, nahi ez diren haurdunaldiak... ikuspegi prebentiboa eskaintzen du, nolabaiteko beldurra transmititzen duelarik, gaitz bat balitz moduan... Eta plazerra??? Sexu-hezkuntza integralak genitalen hezkuntza hau gainditu eta plazerrera eta ongizatera zuzendu behar da! Noski prebenitu behar direla nahi ez diren haurdunaldiak, sexu-bidezko gaixotasunak... baina baita ere sexismoa, sexu-indarkeria, sexu-estereotipoek zapaltzea gure benetako nortasuna... Hau da, sexu-hezkuntza ez da koitoa eta kondoian oinarritu behar.

Desio sexuala ere landu behar da, desioaren orientabideari dagokionez, garrantzitsua da nerabe bakoitzak landu dezala bere desioaren orientabidea eta modu berean gainontzekoen desioaren orientabidea errespetatu dezala

Zelan egin guzti hau? Metodologia partehartzaile baten bitartez, non gazteak izango diren protagonistak, haien sexualitatearen protagonistak eta autoreak. Hezitzailearen papera sexu-hezkuntzan gidatzailearena izan beharko du, haien esperientziak izango direlarik garrantzitsuena, motorra. Inportanteena ez delako zer esaten diegun, baizik eta zer jaso duten, zerekin gelditu diren eta zer eraikitzen duten horrekin gero.